



Errezilgo erregina, liburu egina

 Urola Kostako Hitz: Ihintza Elustondo 2021-04-12 14:09



Bermejo, Berrondo, Urretabizkaia, Agirretxe eta Labaka, liburuaren aurkezpenean.

Ibarbi Sagarraren inguruko liburua aurkeztu dute Errezilen. Joseba Urretabizkaia argazkilari tolosarraren eta Alvaro Bermejo idazlearen lana da. Bermejok azaldu duenez, Errezilgo identitate ikurra da sagarra, eta harreman horretan jarri dute arreta.

Ibarbi Errezil sagarra. Sagarren erregina izeneko lana aurkeztu dute gaur Errezilgo frontoian. Bertan izan dira Luis Berrondo Ibarbi Sagarraren Elkarteko lehendakaria, Xebero Agirretxe Errezilgo alkatea, Alvaro Bermejo liburuaren idazlea, Iñaki Labaka Nekazaritza eta Lurralde Orekako aholkularia eta Landagipuzkoa egitasmoaren arduraduna eta Joseba Urretabizkaia argazkilaria. Dozenaka herritar ere bertaratu da aurkezpenera.

Tolosako Xibarit argitaletxeak kaleratu du liburua, Soroa bildumaren barruan, Errezilgo Udalaren eta Aldundiaren laguntzarekin. Urretabizkaia da argitaletxe horren arduraduna, eta hura izan da proiektuaren ideia izan duena. “Betidanik neukan kapritxoa Errezil Sagarrarekin zerbait egiteko. Gure etxean beti egon izan da Errezil Sagarra. Liburuaren ideari bueltaka hasi ginenean, Errezilera etorri ginen, eta konturatu ginen Ibarbi Sagarraren inguruan sekulako lana egiten ari den elkarte bat existitzen zela. Oso erraza izan da elkartearekin eta errezildarrekin lan egitea”, azaldu du Urretabizkaia.

[Albistearen osorik Urola Kostako Hitzaren webgunean.](#)

[Gizartea Tolosa](#)


Albiste hau ATARIKIDEEi esker argitaratu dezakegu. Haiei esker Tolosaldeko albisteak libre, euskaraz eta kalitatez irakurtzen dituzu. Horrela izaten jarraitzeko eman babesa Tolosaldeko Atariari eta ZU ERE IZAN ZAITEZ ATARIKIDE.

#EgitenDuzunaGara



EGIN ATARIKIDE!

Erantzun



Ikusienak



[Urak eta lurrak gain hartu dute Tolosaldean](#)

Tolosaldeko Ataria abe 10, 10:14 [Tolosaldea](#)



[Hilekoa osasuntsu bizitzeko](#)

Jon Miranda Labaien abe 10, 11:59 [Anoeta](#)



[Oria ibaiak gainezka egin du eskualdean](#)

Tolosaldeko Ataria abe 10, 12:33 [Tolosaldea](#)



[Bedaiorako errepidea konpondu ezean, autobusik ez da pasako](#)

Tolosaldeko Ataria abe 10, 16:17 [Amezketak Tolosa](#)



[120 positibo azken hiru egunetan](#)

[Koronabirusa](#)
Tolosaldeko Ataria abe 09, 13:10 [Tolosaldea](#)



[Komunitatea](#)

[Derrigorrezko txertaketa](#)

[Garbiñe Biurrun](#)
[Mancisidor](#) abe 10, 20:58 [Tolosa](#)

Tolosaldeko Komunikazio Taldea S.M.
San Esteban, 20 Tolosa 20400
tkt@ataria.eus

Erredakzioa: ataria@ataria.eus / 943 655 695

Publizitatea: publi@ataria.eus / 661 678 818

Codesyntaxek garatua



[HONI BURUZ](#) [LEGE OHARRA](#) [PUBLIZITATEA](#) [ARAUAK](#) [HARREMANETARAKO](#) [RSS](#)



Gertuko informazioa, euskaraz

- [AIARALDEA](#) [AIKOR](#) [AIURRI](#) [ALEA](#) [AMEZTI](#) [ANBOTO](#) [ANTXETA](#) [ATARIA](#) [BALEIKE](#) [BARREN](#) [BEGITU](#)
- [DEUSTUALDEA PREST](#) [ERLO TELEBISTA](#) [ERRAN](#) [EUSKALERRIA IRRATIA](#) [GEURIA](#) [GOIENA](#) [GOIERRI TELEBISTA](#) [GUAIXE](#) [HIRUKA](#)
- [KARKARA](#) [KRONIKA](#) [MAILOPE](#) [MAXIXATZEN](#) [NOAUA](#) [OIZMENDI TELEBISTA](#) [PLAENTXIA](#) [TXINTXARRI](#) [URIOLA](#) [UZTARRIA](#)

[28 KANALA](#)

[Gurean](#) [Plazanbazan](#) [Ttap](#)

[Tokikom publizitatea](#)